



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pista

Dagokixon aditza jarri

1. Bazkarixa gertu dago. Etorri hotzittu baiño lehen.
2. Nun afaldu leiken prentzau dostai eta erantzun Arantzazura fateko.
3. Zer egunkarixak atzoko ezbiharraren gaiñian?
4. Nere aurrian balego esango gauzak garbi
5. Saiatu ezker, zeu be izan musikari ona.

Aukerak: zeinke / dixue / dostet / zatezai / noskio

Beste era batera esan


1. Inbirixia euki:
2. Berba egitteko (edo bersuetarako) samurtasuna euki:
3. Lehen baiño hobeto; askoz hobeto:
4. Bestaldera begiratu:
5. Ziurtasun edo zihaztasun barik berba egin:

Aukerak: Etorrixa euki / Igualeko / Tripajatiak euki / Aleitzira esan / Ezikusia egin

Kurtzegramia

DEFINIZIÑUAK

1. Betazal ertzetako uliak.
2. Ebagi luzia eta sakona egin, zartiau.
3. Ustelketan-edo, hasi diran gai organikuen azalian urteten dauen geruzia, edo, orban zurixkak eta harruak, ondduak eraginddakuak.
4. Bero kiskalgarrixa, jota izten zauena.
5. Zerbaitteri darixon zera.
6. Zahartzaruan-edo ulia zuriketia.



Sinonimuak

- | | |
|--------------------|---------------------------------------|
| 1. Geldigorra | A. Pasutako urtiak |
| 2. Aifubeia | B. Mehia, eskasa |
| 3. Iragako/iragoko | C. Geldik egoten ezтана |
| 4. Jareiña | D. Laiotza; leku illuna, umela. |
| 5. Mirriña | E. Eginbiharrak samur izten dittuena. |

Esaera Zaharrak osotu

1. Bakoitzak bere astuari
2. Etxeko hautsak, etxian
3. Otsua aittatu, otsua
4. Sutan probaitten da
5. Eza da.

Aukerak: agertu / eltzia / bidian / arre / astinddu

EUSKERAZ EGOGI

'Ze ondo pasau zara, e!'

Orain hurrunguan antzerki saixo baten akaberan, horixe esan otsan ama batek bere umiari. Ikusten danez **pasau** aditzaren laguntzailia ezeben egogi ebal. Aditz hau era askotara esaten da eta irrist egitteko aukera asko emuten dauenez, ikusi degigun arazo haundixenak eragitten doskueiñak:

NOR (zentzu inpersonalian, harriduria adierazteko, eta nundik eta nora galderai erantzutian darabilgu)

-Gure akuerduan gauza asko **pasau dira**, holakuak eta haundi-xaguak be bai.

-Nundik **pasaitten da** arginddar linea?

-**Pasau** egin haiz, e!

NOR-NORK (Objetua ageri darian eta 'nolatasuna' adierazten dauen aditzonduekin (ondo, gaizki, ederki, gustura ...) darabilgu)

-Lehenengo pruebia **pasau dot**.

-Nundik **pasau bihar daue** arginddar linea?

-Ze ondo **pasau dozuen**, e!

4. eltzia / 5. bidian
1. arre / 2. astinddu / 3. agertu /

Esaera Zaharrak

1-C / 2-D / 3-A / 4-E / 5-B
Sinonimuak

5. Jariña / 6. Urdinddu
3. Lizuna / 4. Galdia

1. Betulak / 2. Brintzaatu
Kurtzegramia

5. Aleitzira esan / bota
4. Ezikusia egin

3. Igualeko

2. Etorrixa euki

1. Tripajatiak euki

Beste modu batera esan

4. noskio / 5. zeinke

1. zatezai / 2. dostet / 3. dixue /

Dagokixon aditza jarri

ERANTZUNAK